

# Irakurtzeko zaletasuna suspertzen

**Joanba Bergara**

«Irakurri? Nik? Bai zera! Ez dut batere gogoko». Hori edo gisa horretakoak entzunak dizkiegu sarritan bai euskaldunei bai erdaldunei ere. Hori dela bide, euskara-irakaslearen eginbeharra zailagoa gertatzen da zenbaitetan, ze euskara irakasleaz gain irakurketarako zaletasunik ezari aurre egin beharrean aurkitzen bait da maiz askotan.

Irakaslearen kezka ez da ez axolarik ez duten horietakoa, irakurketak egundoko garrantzia bait du euskararen ikasprozesuan. Lerro hauetan prolema honi heldu nahi diot, arazoari buelta emateko iradokizun xinglaren bat edo beste proposatuz.

## • IRAKURKETA ESTENTSIBOA

Artikulu honetako gogoetak irakurketa-mota bati dagozkio, irakurketa estentsiboari alegia.

Zer da hori? Hona hemen *Glotodidaktika Hiztegiak* nola definitzen duen:

«Irakurtzen denaren gutxi gorabeherako ulerkuntza lortzeko irakurgai askoren irakurketa. Irakurketa-aztura onak garatzea, hiztegiari eta egiturari buruzko ezagutza hobetzea eta irakurketarako zaletasuna handitzea dira irakurtzeko era honen helburua.» (*Glotodidaktika Hiztegia*, 72. or.) (1)

Beraz, nor bere kabuz gozatzeko egiten duen irakurketaz ari gara, kurtsoaren trinkotasuna dela medio eskuarki ikasgelatik at egiten dena.

Ageri denez, ez dauka zer ikusirik xehetasun osoz, erabat ulertuz eta are analisatuz egiten den testu aski laburren irakurketarekin, hau da, irakurketa intentsiboarekin.

## • EUSKARA IKASTEKO BALIABIDE APARTA

Zeintzuk dira irakurketa estentsiboaren aldeko apostua egitera bultzatzen gaituzten arrazoiak? Honako hauek, besteak beste:

- Irakurketa estentsiboak, pixkanaka-pixkanaka, hizkuntzaz ia konturatu gabe jabetzen laguntzen du.
- Oraindik ikasita ez dagoena ulertzeko, hau da, hitz eta esamolde eta egitura ezezagunak atzimateko parada ematen dio ikasleari.
- Krashen-ek dioenez(2), idatzizko adierazpen-gaitasuna mezu idatziak ulertzearen ondorioz sortzen da, norbera konturatu gabe. Irakurketa estentsiboak, beraz, gaitasun hori garatzen laguntzen du.

(1) Habe (1987): *Glotodidaktika Hiztegia*, Donostia, HABE.

(2) Krashen, S.D. (1984): *Writing: Research, Theory and Applications*, Oxford, Pergamon, 49 or.

## • IKASLEEN ERITZEI ERREPARATZEN

Ikasprozesua pertsonalizatuko badugu, ikasleen eritzi eta interesak aintzako-tzat hartu beharko ditugu ezinbestean. Irakurketaren alorrari gagozkiolarik, ikasleari irakurri nahi dituen liburuak berak aukeratzeko egokiera eman behar zaiola esan nahi du horrek.

Hala eta guztiz, ezin dugu ikaslea inolako erreferentziarik gabe eta bakar-bakarririk utzi egin behar horretan. Horrek ez du esan nahi, ordea, irakaslea denik erizpide hauek eman behar dituen. Alderantziz, ikasleak berak izan beharko luke erizpide-iturririk egokiena liburua-ren interesa zein berorren zailtasun-maila finkatzekoan. Beraz, irakasleak zenbait erizpideri begira eginiko liburuen aukeraketa nahitaez behin-behinekoa izango da.


Zailtasuna eta interesa, horra hor irakurketa estentsiboaren gakoak. Arrakasta alderdi horien arteko orekan datza ez-bairik gabe. Liburuak, edukia dena delako izanik, ikaslearen ulermen-mailatik oso urrun baldin badago, honek ez du inoiz esango: «Izugarri gustatu zait liburu hau.» Bai, ordea, bere ulermen-mailatik pixkat goraxeagokoan badago, baldin eta ulertzeko modukoa baldin bada. Ikasleak berez eta gustora irakurriko ditu gisa horietako liburuak gaiekiko interesak eraginda.

## • BI BALIABIDE

Ondoko lerrootan, liburuak aukeratzekoan lagun dezaketen bi baliabide iradokitzen dira. Batak zein besteak ikasleak protagonista bihurtzen dituzte, elkarri laguntzeko parada emanaz.

Hauexek ditugu baliabide horien birtatez eskura daitezkeen zenbait helburu:

- Ikasleek berek irakurri dituzten liburuen berri elkarri ematea.
- Liburuak elkartrukatzea.



- Ikasleen laguntzaz Euskaltegiko liburutegia pixkanaka eta etenik gabe osatzea, batez ere goimaletan eta alfabetatze-alorrean.
- Eta liburutegiaren erabilera sustatzea.

### a) Kontrol-taula

Kontrol-taula baliabide ezin hobea da ikasleen irakurtzeko grina pizteko. Honek ikasleen liburuekiko jarrerak ageri-agerian azaltzen ditu. Eritzi hauek erreferentzi puntu bihurtu eta pisu handia izango dute liburuak aukeratzekoan. Gainera, asko lagunduko dio irakasleari ere eskolako martxaz hobeto jabetu ahal izateko.

### □ Prozedura

- Kontrol-orria (•1) jarri ikasgelako zein liburutegiko horma batean esekita, ikasle-zerrenda behar bezala beteta.
- Liburu-zerrendari dagokionean, idatzi ikasleen eskura dauden liburu maila-

katuen izenburuak, bakoitzaren aldamenean gurutze txiki bat (x) ipiniz. Ikur horrek liburua eskura dagoela adierazten du, hain zuzen.

— Ikasleak nahi duen liburua aukeratu eta irakurtzen du. Liburutegiko liburu bat eskuratzen duen bakoitzean, ikasleak zirkulu beltz bat (•) egingo du kontrol-orrian berari dagokion lekuan. Ikur horrek liburu jakin bat non dagoen adierazten du: azaltzen ez bada, liburutegian dagoela; alderantziz, kontrol-orrian ipinita badago, zeinek duen.

— Liburua irakurri ondoren, ikasleak kontrol-orriko dagokion laukia beteko du honako kode honi jarraituz:

- Berdea: Asko gustatu zait.
- Gorria: Pixkat gustatu zait.
- Urdina: Ez zait batere gustatu.

Liburutegian ez dagoen libururen bat irakurri baldin bada, haren titulua idatziko da kontrol-orriko liburu-zerrendan, oraingoan gurutzerik (x) jarri gabe. Eta ondoren, ikasleak, lehen

bezala, bere eritzia azalduko du lehen esandako kodeaz.

b) *Liburu-enkantea*


Bigarren teknika honek liburuez hitz egiteko bidea ematen die ikasleei. Aurrekoa bezala, irakurtzeko gogoia bizkortu nahi du.

A	B	C
1	1	1
2	2	2
3	3	3
4	4	4

• 2

*Prozedura*

— Irakasleak, bezperan edo enkante-eguna baino bizpahiru egun lehena-



Liburu- -zerrenda →																				
Ikasle- -zerrenda ↓																				

• 1

go, honako azalpen hauek emango dizkie ikasleei:

Berriki oso gustora irakurritako liburu bat gomendatu behar duzue. Zirrriborro gisa, nahi adina ohar idatz daiteke liburuaren edukiari buruz. Prestatu txosten txiki bat enkante-egunerako eta eskolara ekarri liburuarekin batera.

— *Lehenengo enkantea*

- Ikasleak taldeka jarri. Hamabi ikasle baldin badira, hiru launakako talde era litezke, esaterako • 2n ikusten den bezala.
- Nork bere liburua «saldu» egin behar du, ahalik eta etekin handien ateratzen saiatuz. Horretarako, liburuen mamia azaldu behar da eta ikaskideen galderei erantzun. Kontaketa hori arreta handiz egin behar da, liburuaren xarma ez akabatzeko moduan. Bestela, liburua irakurtzeko desioa motelduko da hein handi batean, edo agian erabat galduko. Ondoren, guztion azalpenak entzun ostean, enkanteari hasiera emango zaio.

— *Bigarren enkantea*

Orain bi bide aukera daitezke.

a) *Taldeak gurutzatu*

Taldeak •3n ikusten den eran antolatu. Lehenengo enkantean lau ikaslez osaturiko hiru taldeak orain hirunakako lau taldetan bihurtu dira: D, E, F eta G. Ondoren, taldekide berriek aurreneko enkantean suertatukoaren berri eman eta bigarren enkante bat burutuko dute. Horren ondorioz, hamabi libururen zerrenda izango dute agian amaieran.

b) *Talde osoa*

Hiru taldeetako idazkariak lehenengo enkantearen emaitzak aditzera eman arabelean eta liburu bakoitzaren mamia azalduko dute. Hori bukatzean, bigarren enkantea egiten da.

\* \* \*

A	B	C	
1	1	1	D
2	2	2	E
3	3	3	F
4	4	4	G

• 3

### FOMENTO DE LA AFICION A LA LECTURA

La lectura de textos de cierta extensión, y realizada de modo independiente por parte del estudiante, desempeña un papel fundamental en el proceso de aprendizaje del euskara. De ahí la importancia de fomentar una verdadera afición a la misma ya desde los niveles iniciales.

El artículo describe dos recursos que pueden

«Béheko mailetan ikasleak ezin ditu azalpen guzti horiek xede-hizkuntzan eman» esango du baten batek arrazoi osoz. Ezin baldin bada, egin ezazu ama-hizkuntzan eta kitto. Azken batean, zein da helburu nagusia? Irakurtzeko zaletasuna bizkortzea, ezta?

contribuir en gran medida a ello: las tablas de control y la «subasta» de libros. En las actividades que explotan estos recursos, el alumno es el protagonista fundamental. Ello no podría ser de otro modo, ya que el mundo de la afición es un área enteramente personal.

### ENCOURAGEMENT FOR THE HOBBY TO READ

The reading of texts of a certain length carried out in an independent way by the pupil plays a fundamental role in the process of learning euskara. Hence the importance of encouraging a real eagerness for reading since the very first stages.

The article describes two means that can

greatly contribute to it: the control charts and the «auction of books». In the activities that develop these resources it's the pupil who plays the leading part. It couldn't be otherwise because the world of hobbies is an entirely personal area.

### PROMOTION DU GOUT POUR LA LECTURE

*La lecture de textes d'une certaine extension, réalisée par l'étudiant de façon indépendante, exerce un rôle fondamentale dans le processus d'apprentissage de l'euskara. De là l'importance d'encourager un véritable goût pour la lecture dès que les élèves sont dans les niveaux initiaux.*

*L'article décrit deux moyens qui peuvent contri-*

*buer à cela en grande mesure: les tables de contrôle et la «vente aux enchères» de livres. Dans ces activités où l'on utilise les deux idées l'élève est le protagoniste fondamental. Cela ne pourrait pas être de façon différente puisque le monde des goûts est une zone entièrement personnelle.*